

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 1335

*EBAZPENA, 2023ko martxoaren 6koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko azaroaren 2ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskaeren gaineko ebazpena. Agindu horren bidez, arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten da.*

2022ko azaroaren 14an argitaratu zen EHAA 2022ko azaroaren 2ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena (Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2022. urteari dagokionez). Agindu hori 2022ko abenduaren 14ko Aginduaren bidez aldatu zen (2022ko abenduaren 30eko EHAA).

Aipaturiko aginduaren 15.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdian aurreikusitako dirulaguntzen ebazpena prozeduran interesdun diren guztiei jakinaraziko zaie, eta, ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ondorioz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinean azaltzen den bezala, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko azaroaren 2ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntzak argitara ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 6a.

Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2023ko martxoaren 15a, asteazkena

## ERANSKINA

## ESKATZAILEEN ZERRENDA, PROIEKTUAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZA

Eskatzailea	Proiektua	Dirulaguntza
Asociación cultural de Artes escénicas Pez Limbo	Inopia-Reducción huella de carbono y digitalización	92.220,00
Asociación de creadores/as de Artes escénicas Pabellón 6	Modernización y digitalización equip. Técnico-Pabellón 6 y Gazte Konpainia	47.273,00
Asociación Zirkodomo Kultur Elkartea	Zirkodomo-Proyecto de modernización y gestión sostenible	46.621,00
Balea musika Ideiak, S.L.	Aulas virtuales interactivas para las artes escénicas y la música	26.134,00
Biribil Zirko Kultur Elkartea	Errota	59.531,00
Elkar Argitaletxeak, S.L.	Adecuación y modernización del estudio de grabación	144.064,20
Ganso Art, S.L.	Reformas y mejoras 2.0 'Korrara sormen gunea'	54.138,00
Guajira Sicodélica, S.L.	Dabadaba berpizten	31.817,00
Kulunka Teatro, S.L.	Kulunka-Lab. Espacio de creación	39.245,00
Orfeón Donostiarra / Donostiako Orfeoia	Modernización y gestion sostenible Orfeón donostiarra	110.493,00
Promociones Etxabarri-Ibiña, S.L.	Renovación equipos sala Jimmy jazz	59.991,00